

AITZINA

Editora: Fermin Munarriz. Koordinatzailea: Mariasun Monzón. Aholkularia: Inaki Egaña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal. Helbidea: Rincón de la Aduana, 18 behe. 31001 Iruñea. Tfnoa. 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: aitzina@nafarkobi.net

NORANTZA AMAIA ARRIETA/SAIO URIBETXE BARRIA

EUSKARAZKO AHOTS SINTETIZADOREAREN EGILEAK

«Ordenagailuak euskaraz hitz egitea lortu dugu»

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Telekomunikazio Ingeniaritza ikasketak egin dituzten bi neska hauek ordenagailuak euskaraz hitz egin dezan lortu dute, egin duten bukaerako proiektuari esker.

AMAIA MUNDIÑANO

Proiektua ezinduei komunikatzen laguntzeko programaren zati bat da. Dena den, beste hainbat gauzatarako ere erabilgarria da.

Nola bururatu zitzaizuen proiektu hau aurrera ateratzeko ideia?

Telekomunikazio ikasketak amaitu eta proiektua aurkeztu behar genuen. Ikasleek egina, bazegoen gaztelaniako testuak ahots bihurtzeko gailua eta euskarazkoena egiteko ideia proposatu ziguten. Gaia interesgarria iruditu zitzaigun eta, gainera, ikasketa bukaerako proiektua egitea beharrezkoa denez, zerbait interesgarria egitea genuen helburua. Horrela hasi genuen testu bihurtgailua euskaraz prestatzen. Dena den, guk egindako lana beste proiektu zabalago baten barnean kokatzen da, zenbait ikasleren artean ezinduentzat prestaturiko *Sivha* programaren barneko proiektu handiaren baitan, alegia. Proiektu orokorraren helburua ordenagailuaren erabilzaileak pantaila begiezt kontrolatu ahal izatea da, begiak ordenagailuaren sagua baliar bezala erabiliz. Guk ahots sintetizadorea egin dugu, eta horrela ordenagailuak euskaraz hitz egitea lortu.

Zertan datza proiektuaren berezitasuna?

Esan bezala, programa ezinduei zuzendua dago, esklerosi anitza dutenei zuzendua konkretuki. Gaixotasun hau dutenek oso mugimendu murriztua dute eta gaixotasuneko azken unean, gehienetan behintzat, begiak bakarrik mugi ditzakete. *Sivha* programaren helburua ordenagailuak

eurek nahi dutena esateko aukera ematea da, hots, ingurukoekin hobeiki erlazioatzeko aukera eskaintzea. Guk egindako programari esker, gaixoak euskaraz ere mintzatu ahal izango dira. Ahal den neurrian, gaixoak sintetizatuta dagoen ahotsarekin ahalik eta identifikatuena sentitzea oso garrantzitsua da. Hori dela eta, ahotsa eta programa osatzen dituzten gainontzeko elementuak ahalik eta naturalenak izatea izan da gure asmoa. Hori guztia kontuan hartuta, personon animoa ere islatu nahi izan dugu eta, zentzu horretan, tristura, haserrea, alaitasuna... adierazten dira. Bestalde, gure programak euskaraz idatzirik dagoen testuaren analisi morfologikoa eta sintaktikoa egiten du.

ko erabil daiteke programa hau?

Proiektuarekin hasi ginenean, *Sivha* elebiduna izatea genuen helburu; hau da, programa hau erabiliko zutenek euskaraz egiteko aukera izatea. Guk egindako programak erabilpen gehiago izan ditzakeela konturatu gara. Itsuek posta elektronikoa moduan erabil dezakete, ordenagailuak guk egindako sintetizadorearekin testua ozen irakur dezake eta, Euskaraz irakasteko ere baliagarria izan daiteke, esaldi guztien analisi sintaktikoa eta morfologikoa egiten baitu, testua ozen esan aurretik. Izan dezakeen erabilpena, beraz, antza dela esan dezakegu.

Euskara teknologia berriera egokitzeko behararren aurrerakokotzen duzue proiektua?

Bai, noski. Teknologia berriek gero eta baliabide gehiago eskaintzen dituzte eta, pixkanaka, beraretan euskararen erabilera ere gorakada. Gure programa euskararen aldeko beste pauso bat da, teknologia berrietan euskarak ere aurrera egiteko beste modu bat.

Zer-nolako etorkizuna du egin dutzen lanak?

Proiektuko gauza batzuk hobetu daitezkeela konturatu gara eta hobetzen jarraitzea interesgarria dela iruditzen zaigu. Lan hori bere gain hartuko lukeen norbait egotea izango litzateke egokiena. Guri lanarekin jarraitzea gustatuko litzaiguke, baina oso zaila zaigu aurrera geure kasa egitea. Programak hasieran uste genuen baino erabilia- ra gehiago ditu eta hainbat arlotan erabiltea interesgarria izan litzateke. Lan honetan zer gertatzen den denborak esango du, baina gu behintzat oso pozik gaude egindakoarekin.



Karlos Cosbilla



Txillardegi

San Sebastián 2000

Urteberri kari, Donostian gaitz ibili naiz egun hauetan. Eta Errege egunean, eguraldi ederra baliatuz, Gaztelura igo naiz.

Kaia erbat adarduta dago. Urrun geldituak dira, jakina, portua arraintziaz beteta egoten zen garaiak. Zer esanik ez *Cameros* Rezolarenak eta garabiak Lasta-kaian topatzen genituenak. Gero eta urriago dira Donostiako arrantzaleak; eta «sardiña freskue» garrantzi handi kalez-kale entzutea ahanzi ere egin zaigu.

Orain, halere, beste urrats bat egin dugu; eta kaiko bigarren gunean zureko esteka-nasa bat ezari digute ur gainean; erabil Anguluko Blancignon-en jarri dutenaren bidetik.

Zer estekatu? Turismo kanok eta bela-ontziak, jakina. Hemen ere hasia da *port de plaisance* dotore bat marmitzen (jauntxoan zerbiztuzan), eta arrantzaz bizi zen populua hura (xarmaz eta zehaztasunez, Toribio Altzagak deskribatua) ziztu bizian desagertzen.

2000 honetan ere, 1900 monarkiko hartan bezalaxe, turismo herri birtuzten irai zaigu Donostia. *Una bella ciudad española para gentes de la capital y otros señores visitantes de lujo.*

Udaltekoa aberakumeentzako Gran Casina gisa eraikia izan zela ahaztu nahi ez (hura bai hiri ederra eta gogoangarria!). Eta horretara goaz buru-belarri.

Zezen-Plaza, jakina, behar genuen, espainiar hiri dotore bati dagokionez. *Cocido madrileño* eta *sevillanas* talde mordo bat ere bai, jai ta aste. Eta frankistek gure gaztaroen nabarmenki bultzatu zuten «Reyes Magos» famatuaren kalbagata sekula baino indartsuago dugu.

Eta, jakina, etxebizitzaren prezioa gora, eta lursailen prezioa gora, hiri-maila osoa gora *San Sebastián sólo necesita gente de pasta*. Eta PP gora, eta PPren «Diario Vasco» gora.

«Herri Batasuna sobra», «Udalbiltza sobra», «el vascoence divide a los donostiarros, y sobra»... Noski!

Aitzindariak

PIERRE LOTI



Hondaiako **BAKAR ETXETIK RAMUNTCHO** eleberrio idazten ari da...



Jakin ere, zerbaixka badaki idazleak GAUEKO LANAZ...



Kontrabandistaren menturen euskaldunen izpiritu libtoa idurikatzen dute...



Honez gero ehundaka Ramuntcho atzetaturik baitaizka Armadako kargupean.

